

KOLOREZKO BANDA

Con diez colores por banda...

*viento en popa, a toda vela
no corta el mar, sino suena
una banda de postín*

Haur Hezkuntzako ikasleentzako kontzertu didaktikoa.

Ikuskizunaren diseinua:

Ana Hernández Sanchiz.

Musika:

Franco Cesarini eta beste hainbat egile.

Musika zuzendaritza:

Koldo Pastor

Interpreteak:

Pablo Sarasate Goi Kontserbatorioko Musika Banda



GIDA DIDAKTIKOA

Ana Hernández Sanchiz

Aurkibidea

Kontzertua	3
Istoriaa	4
Musika	4
Franco Cesarini	8
Musika banda	9
Instrumentuen familiak	9
Bandako instrumentuak	10
Diskografia eta Bibliografia	12

JARDUNAK

1. Instrumentuak ageri!	13
2. Hitz-bandak	15
3. Martxa eritmoan	16
4. Con diez cañones por banda...	17
5. Bandako koloreak	18

Ondorengo jardunak **19**

1 Eranskina	20
2 Eranskina	24



Kontzertua

Bandaren musika gurekin etorri ohi da umetatik, jai goizak alaituz, erraldoi eta kilikiak dantzaraziz, kilikien kolpeak samurtuz... Baina emanaldiak eta banden errepertorioak ez dira jai egun horietara mugatzen, kontzertu denboraldiak eta programa interesgarriak ere izaten ditugu, ia astero ikusteko aukeran izaten ditugunak.

Musika bandak oso ugari eta hurbilekoak ditugun arren, haien egitura eta musika aldetik duten izaera ez dira, esaterako, orkestra sinfonikoarenak bezain ezagunak. Musika gela guztietan aurkituko dugu orkestraren barruan familia desberdinen kokapena azaltzen digun “mapa”, eta bertan parte hartzen duten instrumentuen marrazki zehatzak, baina musika bandaren kasuan ez da horrelakorik gertatzen. Badakigu, jakin, “haize instrumentuen orkestra bat” dela, baina... haize instrumentuena besterik ez? Zein da familia edo instrumentu bakoitzaren eginkizuna bandaren barruan? Programa honen bidez, galdera hauei eta beste hainbesteri erantzuten saiatuko gara. Modu teorikoa baino, praktikoa eta ikusgarria nahiago dugu, kontzertura etorriko diren txikiengatik, musika berriak ezagutu eta entzuteko, eta ikuskizun plastiko eta koloretsuez liluratzeko gogoz etorriko baitira. Haien gogoia betetzen egingen ditugu eginahalak.

Kontzertuak bi zati ditu. Lehenbizi, banda osatzen duten familien eta instrumentuen aurkezpena, horretarako instrumentu talde bakoitzaren ohiko errepertorioko hainbat konposizio erabiliz: metalentzako fanfarre bat, zurezkoentzat martxa bat, konposizio erritmiko-keinukaria perkusiorako... gainera, musika banden tradizio “ibiltariari” men eginez, gure herri eta hirietako karraketan baina ibiltzen baitira desfile eta prozesioetan, espazioarekin jostatuko gara, instrumentuak mugimenduan aurkeztuta, auditorioko hainbat zokotatik aterata, umeak inguratzen dutela euren soinu zuzeneko eta hurbilaz.

Bigarren zatirako, beriz, banda osoa izanen dugu taula gainean, Franco Cesariniren *Suite Tom Sawyer* konposizioa jotzeko prest. Hauxe izanen da pirata hauen istorioaren muina. Ez dira pirata oso beldurgarriak, bai, ordea, musikari ikaragarriak, Pablo Sarasate Goi Kontserbatorioko Musika Bandako kide gazte hauek. Eurek egingen dituzte narratzaileak iradokiko dituen eszena jokoak, argiztapena lagun dutela. Orkestrako familia bakoitzari dagozkion kolore primarioak ditu oinarri argiztapenak. Musika jokoak, argiz eta mugimenduz eginak, pirata banda honen altxorra, alegia, bandarako musika, aurkitzeko.

Gida didaktiko honetan FUNTSEZKO tresna aurkituko duzue kontzertuaren prestaketa lanerako: *Suite Tom Sawyer* konposizioako tema nagusien partiturak, ikasgelan lan egiteko egokitutako zenbait letraz osatuak. Umeak kontzertura melodia horiek ikasita joaten badira, lan handirik gabe ezagutuko dituzte, eta askoz ere gehiago gozatuko dute musika lan honen egituraz, eta ikuskizunaz ere bai.



Istoriaoa

Munduan diren leku urrunenetatik etorritako piratek hartuko dute auditorioaren aretoa, gu guztiok inguratuta, inongo ihesbiderik ez uzteko... ez dugu ihes egiterik! Egon gaitezen lasai, bada, eta ikuskizunaz goza dezagun! Iparraldeko piratak heldu dira, euren metalezko armak eskuan hartuta... hegoaldeko piratak, zurezko armez; uharteetako piratak, basatienak, makilez eta danborrez... hainbeste pirata bat eginda, asunto txarra!

Baina, zorionez, pirata hauek gutako gehienak baino argiagoak eta zibilizatuagoak dira, eta euren indarrak batu eta banda handi bat osatzea erabaki dute, itsasoak zeharkatzeko mila altxorren bila... pirata banda honek ez baitu haizea itsasontzia mugitzeko bakarrik erabiltzen, instrumentuei soinua ateratzeko ere erabiltzen baitute. Itsasontzi honetako kanoiek ez dute dinamitaz kargaturiko bala astunik jaurtitzen, era guztietako notak baizik: agudoak eta grabeak, motzak eta luzeak, melodia arin eta alaiak edo malenkoniatsuak eta erdi lo ateratzen direnak... Presta zaitzete, izan ere... musika ageri da aurrealdean!

Musika

Aurkezpenean, familia desberdinak taula gainean agertuko dira euren erreperatorioan ohikoak dituzten lanak interpretatzen dituztela: fanfarre barroko bat metalerako, martxa militarra zurezkoentzat, leinu giroko konposizio bat perkusiorako... baina kontzertuko plater nagusia istorioaren ardatza izanen den lana da:

TOM SAWYER SUITE
Mark Twainen bost eszena Op. 27

I. Tom Sawyer	1:51	
II. Huckleberry Finn		2:02
III. Becky Thatcher		2:34
IV. Injun Joe		2:58
V. Happy Ending	5:41	

Franco Cesarinren liburu kuttuna, umetan, *Tom Sawyerren abenturak* zen. Alaitasun, beldur eta askatasun giroko unibertso magiko hartaz umetatik gorde zituen oroitzapenetatik abiatuta, liburu hartako protagonistei bizia ematen saiatzen da Franco Cesarini Suite Tom Sawyer izeneko konposizio honetan zehar. Hasierako lau mugimenduetako bakoitzak istorioko pertsonaia bat deskribatzen du. Tom Sawyer irudikatzen du lehenbiziko mugimendua; musikaren aire arin eta isekaria azpimarratzen da "Cake-walk" eritmo ezaguna erabiliz. Bigarren mugimendua, beriz, Huckleberry Finn pertsonaiari eskainia da, Tom Sawyerren lagun mina zen etxegabeko arlote txikiari. Bere baitan du *Ring Ring de Banjo* kantu amerikar tradiziozkoaren tema. Hirugarren mugimendua, motelagoa, adierazgarriagoa eta malenkoniatsuagoa, Becky Thatcher pertsonaiaren irudi delikatuaren deskribapena da. Ondoren Joe Indiarra dago, bere krimena ikusi duten bi lekukoak, Tom eta Huck, alegia, harrapatu eta hiltzen saiatzen dena. Joeren sekretua ez du inork jakin behar eta, mehatxu giroa dario laugarren mugimendu honi. Bosgarren mugimendua, aldiz, istorioaren amaiera zorientzua irudikatzen du. Aurreko mugimenduetako tema guztiak, Joe Indiarrena izan ezik, melodia alaietan josiak dira, azkenean giro bikaina lortzeko, Tom eta Beckyren temak era ezin hobean uztarturik.



Logikoa denez, kontzertuan, izaeraz deskriptiboa den konposizio honek izaera kontalariagoa hartuko du. Mark Twainen eleberriko pertsonaiak deskribatuzetik, gure piraten gorabeheretako pasadizo desberdinak irudikatzen iraganen da.

Lanaren mugimendu bakoitzak melodia nagusi bana du, instrumentu desberdinetan errepikatzen dena, solasaldi edo galde-erantzunen jolas soilen modura. Ikasleek tema nagusi horiek ezagutu eta kontzertuan are gehiago goza dezaten, egokitzapen erraz batzuk erantsi ditugu, ikasgelan lan egiteko (abesti edota antzerki-jokuetan lantzeko). Aldez aurreko lan FUNTSEZKOA da:

Igo mugimendua. A tema

He-men da - go, pi _ ra - ten ban - da, be - ne - tan i - zu _ ga - rri - al

He-men da - go, pi _ ra - ten ban - da, zu bai - no bihu-rria-go - ak ga - ra.

Igo. mugimendua. B tema

Pi - ra - tak ga - ra, hau bel - du - rral

1 Taldea

2 Taldea

Gaiz-to-ak e - ta la - pu - rrak ga - ra

Pi - ra - tak ga - ra, hau bel - du - rral

Zu - re al - txo - rra gu - re - a da



2gn mugimendua. A tema

Le - ho - rra bis - tan! Ir - la a - ge - ri da

Pi - ra - ta guz - ti - ok a - lai - tu - ko ga - ral

2gn mugimendua. A motiboa

Le - ho - rra bis - tan!

3gn mugimendua

Lentamente



4gn mugimendua. Instrumenturako tema:

Xil. 


Perkusioa 


4gn mugimendua. Ahotserako motiboa:


Ahotsa 
Chik - ka han - ka

Perkusioa 

4gn mugimendua. Ahotserako tema

Ahotsa 
mp
Chik - ka han - ka

Perkusioa 


p Chik - ka han - ka *pp* Chik - ka han - ka



Franco Cesarini



Franco Cesarini Suitzako Bellinzonan sortu zen 1961ean.

Musika ikasketak Milango (Italia) Kontserbatorioan hasi zituen, txirula eta pianoa ikasiz. 1980tik aurrera Peter-Lukas Grafekin jarraitu zituen ikasketak, Basileako Kontserbatorioan. Hiru urte aurrerago, musika irakaslearen diploma jaso zuen. Hainbat lehiaketa irabazi ditu bakarleri gisa nahiz ganbera musikako taldeetako kide gisa, haien artean nabarmentzekoa dela 1981eko Bakarlarientzako Suitzako Lehiaketan lortutako lehen saria. 1984an Ernst Göhner-Migros Fundazioaren beka bat eskuratu zuen. Peter-Lukas Grafekin jarraitu zuen ikasten, harik eta kontzertu emaile diploma lortu zuen arte. Bien bitartean, musika teoria eta konposizioa ikasi zituen Robert Suter eta Jacques Wildbergerrekin, eta banda zuzendaritza Felix Hauswirthekin.

Egun banda zuzendaritza irakasten du Zuricheko Kontserbatorioan.

Konpositore eta konponketa egile joria izateaz gain, "Civica Filarmonica di Lugano" eta "Civica Filarmonica de Balema" zuzentzen ditu. Bestalde, eskari anitz jasotzen ditu herrialde anitzetatik orkestra zuzendari nahiz epaimahaikide lanak egiteko.

Cesarini oso musikagile joria da. Bere lanetan, bandarako eta brass bandarako konposizioez gain, ganbera musikako taldeentzat, instrumentu bakarlarientzat, koruentzat, harizko orkestrarako eta orkestra sinfonikorako egin izan ditu musika lanak. Bere lanik gehienak CDan grabatu izan dira. "World Association for Symphonic Bands and Esembles" (WASBE) delakoaren zuzendaritza batzordeko kidea da.



Musika banda

Musika banda haize eta perkusio instrumentuez osatutako musika taldea da. Orkestra sinfonikoak bezalako egitura du, honetan klarineteak duela orkestra klasiko edo sinfonikoetan biolinak duen eginkizun nagusia.

Banda mota desberdinak daude:

Udal Musika Banda: haize eta perkusio instrumentuez osatuak. Batzuetan eserita jotzen dute, "orkestra" formazioan, eta beste batzuetan ibili edo desfilatu bitartean jotzen dute musika, ekitaldiren baten laguntzan, besteak beste prozesioen laguntzan, herriko festetan...

Musika Banda Militarra: hauek ere haize eta perkusio instrumentuez osatuak dira. Armadetan erabiltzen dira martxak jotzeko eta soldaduei desfileetan laguntzeko eta, beraz, ibiltzen diren bitartean jo ohi dute musikariek.

Banda Sinfonikoa: banda hauek, haize eta perkusio instrumentuak ez ezik, kontrabaxuak eta biolontxeloak ere erabiltzen dituzte. Eta batzuetan arpa eta pianoa ere bai. Banda sinfonikorako musika finkoa da, alegia, musikariak eszenatoki edo auditorio batean eserita daudela jotzen da. Zenbaitetan, gerta daiteke banda sinfonikoak bere organikoa murriztea, udal banda edo banda militar moduan jotzeko.

Espanian bandako musikaren tradizio handia dago, batez ere Valentzia eta Murtzia aldean. Valentziako banda sinfonikoak musikari talde eta konfigurazio oso markatuak izaten dituzte, erreperitorioan jo behar duten musika motaren arabera (XIX. mendeko musikagile handien eta garaikideen sinfonikoa). Haien mantenurako Musika Elkarteak sortu ziren, egoitza leku enblematikoan izaten dutenak, *Musika Kasinoan*, hain zuzen ere. Elkarte hauek, XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen zati handi batean orkestra sinfonikoen eskasia betetzen zuten, batez ere landa eskualdeetan. Banda hauetako maisu-zuzendariak, guztiz gehienak zaletasun handiz aritzen zirenak izaki, elkartearen artxiboa hornitzeko euren "transkripzioak" egiten zituzten, musikaren historiako musikagile handien lan sinfonikoak bandarako egokituta prestatzen zituztenak. Horregatik, euren artxiboetan egiazko altxorrak gordetzen dituzte banda haiek, moldaketa lan eta transkripzioez beteak, gehienetan argitaratu gabeak eta era komertzialean ere plazaratu gabeak.

Instrumentu familiak

Familia guztiak bezala, instrumentuenak ere aiton-amonak, gurasoak, seme-alabak eta bilobak dituzte, instrumentu bakoitzaren tamainaren arabera. Horren erakusgarri ona *Piccolo, Saxo eta Konpainia* Andre Popperen ipuina¹ da. Orkestrako familiak umeei aurkezteko sortutako ipuin honetan, musika eta hitza elkarrekin datoz, instrumentuen soinu eta kolore anitzetako mundua erakusteko guri. Beraz, ipuin hau gelan entzutea eta lantzea sarrera bikaina izan daiteke bandaren kontzertura joatekoa prestatzeko.

Instrumentuaren tamainak zerikusi handia du haren soinuarekin:

handia=gabea, txikia=agudoa.

¹ *Piccolo, Saxo y compañía*. La Mota de Polvo Bilduma. AgrupArte Argit. Vitoria-Gasteiz
Ana Hernández Sanchizen Gida didaktikoa



Bandako instrumentuak

Haize instrumentuak

Hodiaren barneko airea dardaraztean sotzen da soinua.

- Haizea-zura
 - Aho ahopildua
 - Txirula
 - Pikolo
 - Kanabera arrunteko mihia
 - Klarinetea, rekintoa
 - Saxofoia
 - Kanabera bikoitzeko mihia
 - Oboe, ingeles adarra
 - Fagota
- Haizea- metala
 - Tronpeta
 - Tronpa
 - Tronboia
 - Tuba
 - Bonbardinoa

Perkusio instrumentuak

Soinua material soinudun bat jotzean sortzen da (larrua, zura, metala...)

- Gozatze zehaztua
 - Tinbala
 - Xilofonoa
 - Bibrafonoa, lira...
- Gozatze zehaztugabea
 - Danborra
 - Bonboa
 - Txindatak
 - Triangelua...



Arestian ikusi dugun sailkapen tradizionalaz gain, bandako instrumentuak beste era batera ere sailka daitezke, bestelako irizpideen arabera. Beharbada, ikasleak ere animatuko dira eta euren sailkapenak proposatuko dituzte. I Eranskinean aurkituko dituzue bandako instrumentuen irudiak, horiek kopiatzen edo handitzen ahal dituzue eta ikasgelan jarri sailkapen horretarako.

- Tamaina.

Handiak
Ertainak
Txikiak

- Soinua egiteko modua:

Aerofonoak
Menbrafonoak
Idiofonoak

- Materiala:

Zura
Metala

- Soinuaren altuera

Agudoak
Grabeak

Asma itzazue klasean sailkapen berriak:

- *JATORRIA*
- *KOLOREA*
- *PISUA*
- *ANTZINATASUNA*
- *BITXITASUNA*
- *Eta abar...*



Bibliografía

ARDLEY, N. *Musika*. Altea-Desclée. Bilbao, 1991.

NAVARRO, C: *Los supermúsicos*. RBA

PALACIOS, F eta RIVEIRO, L. *Artulugios e instrumentos para hacer música*. Opera tres. Madrid, 1990.

RANDEL, D. *Diccionario Harvard de música*. Alianza Editorial. Madrid, 2004.

VV.AA. *Piccolo, Saxo y Compañía (Guía didáctica)*. Cuadernos Agruparte. Vitoria, 1999.

Discografía

CESARINI, F. *Blue Horizons. (Tom Sawyer Suite)*. Civica Filarmonica di Chicago.
M – Rete Due

POPP, A. *Piccolo, Saxo y compañía*. Colección La Mota de Polvo. AgrupArte. Vitoria-Gasteiz, 1999.

VV.AA. Compilados por Navarro, C: *Los supermúsicos*. RBA (CD)



JARDUNAK

I. Instrumentuak ageri dira han!

Orkestrako instrumentuak hurbilgotik ezagutzeko baliabide ohikoa eta balekoa zera izaten da, keinuak imitatuz eta izenak aipatuz egiten diren kantuak. Hona hemen horietako bat:

Paristik natorren artista

Pa - ris - tik na - to - rren ar - tis - ta batnaiz ni. Pa -
ris - tik na - to - rren ar - tis - ta batnaiz ni. On - do jotzen
dut. Bai - ta guk e - re. Tron - pe - ta nik jo - tzen dut:
tu - ru - tu tu - ru - tu tu - ru - tu tu - ru - tu
tu - ru - tu tu - ru - tu tu - ru tu - ru tu - ru - tu

- Ikasle bat kantatzen hasiko da eta besteek errepikatuko dute berak esandakoa eta bere mugimenduak (*tutti* = azpimarratutako zatiak). Txandaka, bakarlari bakoitzak musika tresna bat imitatuko du:

Paristik natorren...
Txirula nik jotzen dut:
txiruli, txiruli...

Paristik natorren...
Danborra nik jotzen dut:
popopron, popopron...



- Badira horren antzeko kantuak, ia guztiok ezagutzen ditugunak, osorik gogoratzen ez baditugu ere, esaterako “*Mi familia*”, TVEko pailazoena:

*Mi familia,
sí señores,
somos músicos de honores
y tenemos
una orquesta
de muchas generaciones.
Si tú quieres
que te enseñe
a tocar la melodía
pues depende
del instrumento
que tú tengas ese día.
Si toco la trompeta
tará tará taretá
si toco el clarinete
teré teré terete
si toco el flautín
tirín tirín tirín
Si toco el tambor,
porrón, porrón, porropón.*

- Nor dabil zuzendari?

Biribilean eserita. Ikasleetako bat ikasgelatik aterako da, eta gainerakoek “zuzendari sekretua” aukeratuko dute. Zuzendari hori instrumentu bat jotzen hasiko da, eta taldeak hura imitatuko du. Gero instrumentua aldatuko du, eta besteek ere bai. Kanpora atera dena sartu egingen da eta, zalapartaren erdian, “zuzendari sekretua” zein den aurkitu behar du. Jarduera honek aukera ematen ahal du umeei azaltzeko zein den bandako zuzendariaren eginkizuna, garrantzia...

- Ikasgelako instrumentuak

Egizue ikasgelan dituzuen instrumentu guztien zerrenda. Sailka itzazue familiaka. Sailkapena egiteko, zeuek aukeratutako irizpideak ere erabil ditzakezue: materiala, kolorea, pisua, usaina...

- Bestelako haize instrumentuak

Haizea baliagarria da jostailu eta tramankulu askori mugimendua emateko, edo soinua ateratzeko: plastikozko tronpetatxoak, Kazooak, errotatxoak, kometak, txistukariak...

- Bestelako perkusio instrumentuak

Ume txikiek oso gertukoak dituzte kolpeka jo edo igurtzi eta soinua ateratzen duten gauzak: txintximinak, zintzilikario soinuekariak, danbortxoak, platera eta koilara, ...

- Geure instrumentuak egitea

Oso erraza da puxikak erabilia (zimikoa eginez, joz –perkusia- haizea pixkanaka askatuz –haizea-) tutuetan putz eginez, botilak, paperak, baso bateko uretan lastotxo batez putz eginez... eragin irudimenari.



2. Hitz-bandak:

Banda hitza, hizkuntza eta asmoarekin era desberdinetan jolasteko aitzaki ona izan daiteke. Hemen duzue garatzeko hainbat erreflexioak:

- Beste *bandak*
 - Musika-banda
 - Soinu-banda
 - Maiztasun-banda (AM, FM...)
 - Banda, oihalezko xingola

- *Banda*-rekin erimatzen duten hitzak
 - Txanda
 - Panda
 - Landa
 - Eztanda
 - Etzanda
 - Uganda
 - Fernanda

- Hitz lotuak:

BanDA – DATA – TAberNA – NAfarroA – AmaTXO – TXOkolate...


- *Banda* hitzarekin egindako akrostikoak:

B ere
A nai txikia
N egar egiten
D u
A skotan



3. Martxa erritmoan

Musikari-piraten eta euren instrumentuen aurkezpena urratsez urrats eginen da, instrumentu familiaka. Haize-zura familiaren etorrera izanen denaren adibide gisa, hona hemen martxa militar alai eta ezagun hau, testu bat erantsirik, ikasgelan kantatzeko modua izan dezazuen: Errepara iezaiozue, hitzak danbor bat aipatzen du. Melodia honen akonpainamendu ezin hobea da, izan ere, militarren martxa eta desfileekin lotzen dugun instrumenturik baldin bada, hori danborra da... 4 urteko umeak ere badaki hori!



En las no-ches es-tre-lla - das, ca-si siempre to-co mi tam-bor. A

ve - ces to-co_y to - co, só-lo pa - ro al sa-lir el sol. Cuan-do_es-

toy con mis a - mi_gos lo pa - so mu-cho me - jor. En las

no-ches es - tre - lla - das, ca-si siem-pre to-co mi tam - bor.

- Lagundu martxari eskura dituzuen pandero edo danbor txikiez. Markatu pultsua beltzetan soilik. Ikasleen adina eta mailaren arabera, gero eta zailago egiten ahal duzue, erritmo motibo laburra sortuz, obstinato modura.

- Guztientzako danborrik ez baduzue, txalo jotzen aritzen ahal zarete, belaunen gainean edo lurrean.

- Haize-zura instrumentuak aurkezten ditugula aprobetxatuta, material horrekin egindako perkusio txikiko instrumentuak hartzen ahal dituzue, esaterako klabeak edo kutxa txinatarrak

- Mahai gainean edo lurrean jotzeko guztiek euren makilak izateko beste aukera merke eta erraz bat ziri txinatarrak dira. Txinatamen dendetan dituzte salgai, pakete handietan. Gainera, ekialdeko irudiez apainduak izaten dira, eta egiazko altxorra dira gure pirata txikientzat.



4. Con cien cañones por banda...

Kontzertuaren azpi-izenburua, bistan da, José Espronceda poeta erromantikoaren “*La canción del pirata*” poema ezagunean inspiratua da. Bertso hauek memoriaz ikasi zituzten hainbat belaunalditako ikasleek. Seguru aski, lerro hauek irakurtzen ari zareten askok ere bai, ez al da hala? Batzuek lороen modura errepikatzen genituen, hitzen esanahiari ongi erreparatu gabe, baina ez du zertan hala izan:

- Errezitatu ikasleentzat poema, poliki eta zentzua emanaz. Azal itzazue hitz ezezagunak: popa, bergantín, bajel, confín... bila itzazue sinonimoak, marraztu itzazue, etab.
- lkas ezazue, errepikatuaren errepikatuaz, poemaren hasiera. lkasle handienek, beharbada, irakurtzeko gauza izanen dira.

**Con cien cañones por banda,
viento en popa, a toda vela,
no corta el mar, sino vuela
un velero bergantín.**

**Bajel pirata al que llaman
por su bravura “El temido”,
en todo el mar conocido,
del uno al otro confín.**

- Bila dezakezue Euskal Herriko piraten itsasontzien istorioak ere, eta hortaz dabilen ipuin eta bertsoak, gelan irakur eta lantzeko. Kontzertuan, belaontzi bergantin hori pirata-musikariez eta instrumentuez beterik egonen da, kainoi hilgarriez beterik egon beharrea. Marraztu dezala ume bakoitzak itsasontzi hau, bere musika-kanoiak eta guzti.

- Egin ezazue orain, guztion artean, “hormako itsasontzi” bat paper jarraituan, nahiago duzuen teknikaz (behatzez pintatuz, kollage, argizariak, teknika mistoa...) behin bukatuta, piratez eta instrumentuez bete dezakezue. Zuek zeuek asma ditzakezue, baina lana errazte aldera kapitain, ontzi-mutil eta bukanero irudi batzuk erantsi dizkizuegu 2 Eranskinean.



5. Bandaren koloreak

Musikarien jantzien eta argien kolorea izanen da kontzertuaren osagai berezietakoa, kolore primario bana emanen baitzaio instrumentu familia bakoitzari.

- Aukera itzazue haizea, zura, metala eta perkusio familiei dagozkien entzunaldi zenbait, bai eta instrumentu bakarlariei dagokionen bat ere bai, haien tinbrea ezagutzeko.
- Eman familia bakoitzari kolore bana (nahi erara, desberdina izan daiteke egun edo aste bakoitzean, parekotasuna ez dadin izan behin betikoa ikasleentzat).
- Entzunaldi jakin bat entzun bitartean, egin itzazue konposizio plastikoak, dagokien koloreko gama desberdinak erabiliz.
- Entzun ezazue *“Piccolo, Saxo y Compañía”* musika ipuina. Egizue musikograma erraz bat, musika aurkezpen segidari dagokion kolore saila erabiliz.
- Ikasgelako instrumentuak taldeka sailkatu ondoren (zuek erabakitako irizpidearen arabera: tamaina, materiala, jotzeko era...), eman talde bakoitzari kolore bana. Egizue kolorezko partitura bat eta guztien artean interpretatu.



Ondorengo Jardunak

1. Tom Sawyer

Ez dugu beharrezkotzat jotzen ikasleei azaltzea *Tom Sawyerren abenturen* argumentua, ez, behintzat, kontzertuaren aurretik, gai hori ez baita garatuko ikuskizunean. Aitzitik ere, kaltegarria gerta daiteke, ikasleak nahasten ahal baititugu bi erreferentzia tematiko desberdinez.

Hala ere, ondorengo jarduna izan daiteke istorioaren bertsio labur bat azaltzea (komikian ere izan daiteke), Franco Cesariniren musika entzuten den bitartean.

2. Piratak

Honezkero, piraten itsasontzian zazpi itsasoak zeharkatzen dituen itxurazko banda honen egiazko istorioa ikasi dute ikasleek eta, litekeena da istorio berri asko ateratzea, instrumentu familiak direla protagonista, edo bakarkakoak, banda osoa batera...

3. Instrumentuak

Ziur instrumenturen batek besteek baino gehiago harritu dituela ikasleak, baina...
Ikusi eta entzun ditugun guztietatik, zein jo nahi genuke? Ba al dakizue nora jo behar den instrumentu bat jotzen ikasteko? Banda edo orkestra bateko kide izan nahi al zenukete? Zergatik?



I E r a n s k i n a

KLARINETEA

vista lateral



vista posterior



vista desmontado



ZEHARKAKO TXIRULA




OBOE

Vista posterior




Vista desmontado




FAGOT



TRONPETA




TRONBOI IRRISTAILUDUNA



TRONPA



TUBA



PERKUSIOA



2 Eranskina





